

Hirubi Triatloi Elkarreak, Sopelako Udalaren babesarekin, Gazteria eta Kirolaren Batzordearen bidez, eta Euskadiko Triatloi Federazioarekin elkar-lanean, Euskal Zirkuitorako baliogarria den Sopelako VII. Duatloia antolatzen du, 2012ko otsailaren 18an. Sopelako VII. Duatloia, Euskadiko Triatloi federazioaren araudiarekin bat dator (ikusi [www.triatloi.org](http://www.triatloi.org)). Azpimarratu behar da sexu ezberdineko partaideen artean drafting-a debekaturik dagoela.

## **PARTAIDETZA**

Parte hartzea triatloi lizentzia indarrean duten guztiei zabaldua dago. Federatuak ez direnek, "eguneko lizentzia" delakoaren truke 10€ gehiago ordaindu beharko dute. Honako kategori desberdinetan bereiztuko da sailkapena, Kadete, junior, 23 urte azpikoak, beteranoak (1-2-3) eta absolutoa.

## **DISTANTZIAK ETA IBILBIDEAK**

- Oiñezko karrera: (1. atala) 5,2 km. Sopelako herri gunean zirkuitu bati 2 buelta.
- Txrindularitza: 19,2km. Sopela, Barrika, Plentzia, Urduliz, Plentzia, Barrika eta Sopela.
- Oiñezko karrera: (2. atala) 2,5 km. Sopelako herri gunean zirkuitu bati buelta bakarra.

## **DENBORA EPEAK**

Lehenengo partzialaren denbora epea, 28 minututakoa izango da. Lehenengo eta bigarren partzialen batuketaren denbora epea, ordu bateko eta laurdenekoa izango da.

## **IZEN EMATEAK**

Izen ematearen epea, otsailaren 17an, (barikua) edota 250eko partaide kopurua betetzerakoan bukatuko da. Federatuak ez direnentzat, izen emate epea otsailaren 6tik, otsailaren 15era (asteazkena) izango da. Izen emateak Euskadiko Triatloi Federazioak duen web gunearen bitartez bete daitezke ([www.triatloi.org](http://www.triatloi.org)).

Informazio gehiago telefono zenbaki hauetan 687980069 (Ekain) edota 687729897 (Iñigo). Baita [info@triatlonsopelana.org](mailto:info@triatlonsopelana.org) -n ere

### **Izen emateak / Diru kopurua.**

Federatuak: 20 €

Federatuak ez direnak: 30€

## SARIAK

Sailkapen orokorreko lehen hiru sailkatukoei zein herriko lehenari, bai gizonezkoetan eta emakumezkoetan, garaikurra eta dirua emango zaie. Bestelako sailkapenetako garaile zein taldekako irabazleek garaikurra eskuratuko dute.

Diru sariak hauek izando dira:

<b>Sailkapen orokorra:</b>		<b>Bertakoak:</b>	
<b>Gizonezkoak</b>	<b>Emakumezkoak</b>	<b>Gizonezkoak</b>	<b>Emakumezkoak</b>
1. 300 €	1. 300 €	1. 30 €	1. 30 €
2. 200 €	2. 200 €		
3. 100 €	3. 100 €		

## IDAZKARITZA TA DORTSALEN BANAKETA

Idazkaritza Sopelako Udaletxean kokaturik aurkituko da. Dortsalak, lasterketaren egun berean jaso ahal izango dira 13:00etik 15:00tara, lizentzia edota N.A.N-a, aurkeztuz.

“Boxes” gunea 15:00etan zabalduko da. Bertara sartzeko derrigorrezkoa izango da 2012ko lizentzia edo N.A.N-a aurkeztea. Material kontrola 16:00retan itxiko da eta boxeak ordea 16:10etan.

Sari eta garaikurren banaketa Udaletxeko plazan egingo da 18:00 etan.